



**2013KO OTSAILAREN 15EKO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko otsailaren hamabostean, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2013ko otsailaren 1an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 87 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEI EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO (9.920,67€)takoa eta 2013ko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMAIIKA MILA ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (71.090,47€)takoa, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 606 zbk.dun esped.: zerbitzua zabaltzea, astean 6 ordutik 13 ordura, bere osasun egoeraren aldaketarengatik. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %24 izango da.
- 247.1 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2013ko otsailaren 3an, heriotzagaitik.
- 10-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2013ko otsailaren 1ean, heriotzagaitik.

**Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**



- 13-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren logela bateko alokairu gastuetarako hilean 120 € ematea, urtarriletik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 187,50€ ematea eta mantenimendu gastuetarako hilean 69,38€ ematea, urtarriletik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %75 da.
- 13-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea eta mantenimendu gastuetarako hilean 92,50€ ematea, otsailetik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-004 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea eta mantenimendu gastuetarako hilean 92,50€ ematea, otsailetik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,50€ ematea, urtarriletik hasita. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu eta alokairu gastuetarako dirulaguntzetatik baja ematea, urtarriletik, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateagatik.

#### IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Beneditarren Fundazioari 2013ko aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntzaren kontura HAMAR MILA (10.000 €) EUROko aurrerapena egitea.
- Antsoategi Elkartek 2013ko Astotxo Egunean Gipuzkoako Astoen lehiaketa eta erakusketa antolaketa dela eta, LAU MILA ETA BOSTEHUN (4.500 €) euroko dirulaguntza ematea. Bi mila eta bostehun (2.500€) euro aurreratu egin zitzaizela kontuan izanda orain bi mila (2.000 €) euro ordainduko zaie.
- Gerriko Liburudendari, abenduaren 14, 15 eta 16an egindako euskal liburu eta disko azokan saldutako kopuruaren %15aren dirulaguntza, hau da, BI MILA ETA LAUROGEI-TA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (2.095,70 €).
- Zawopi denbora libreko taldeari, 2012ko eguberrietako jaiotza biziduna, errege kabalgata eta Astotxo Eguneko "Egiptorako ihesaren kale antzespina"ren jarduerengatik, BI MILA SEIEHUN ETA BAT EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (2.601,48 €)ko dirulaguntza ematea. Abenduan 1.500 euro aurreratu zitzaizela kontutan izanda, orain 1.101,48 euro emango zaie.

#### V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:



- San Benito Ikastolari, Ziburuko "Pierres Larzabal" ikastetxe berria eraikitzeko gastuei aurre egiteko, HIRUREHUN (300 €) EUROko dirulaguntza ematea. Diru hau emateko modua 2012ko abenduaren 30an Ordiziako majori Kiroldegian egin zen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailasoen saioaren gastuei aurre egitea izan da.
- Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari, Mintzalagun proiektuarengatik, 2012ko irailetik abendura bitarteko eperako BOST MILA (5.000 €) EUROko dirulaguntza ematea.
- AEK, 18. KORRIKARI, datorren martxoaren 14an hasiko den Korrikaren 18. edizioari kilometro bat erosiz, BOSTEHUN (500 €) EUROko dirulaguntza ematea.
- San Benito Ikastolari, jarduerak aurrera eramateko udal honekin izenpetuta daukan hiztarmenaren baitan, 2012ko HOGEITA BOST MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HIRU EUROko dirulaguntza onartzea. Aurretik 12.761,50€ emanda daudela kontutan izanda, orain beste 12.761,50€ emango zaizkio.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta lau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

